

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko martxoak 7

Usurbil, 15. Zenbakia




**ETXERA
ERAMATEKO ZAIN**

HILDAKOAK



1997-02-28
M^{re} Teresa Matxain Lizaso
 68 urte.
 Aginaga



1997-03-01
Ascensio Sagarna Beristain
 85 urte.
 Arratzain Bide kalea

JAIOTZAK



Maider Zubelzu Irazusta (1997-02-18) Irazu kalea.



Noaua! Kultur Elkartek bere dolumina bidaltzen dio *Andoni Sagarna* Noaua!-ko lehendakariari bere aitaren heriotzean.

Urtarrilaren 20an 55 usurbildarrek emandako odolarekin 22 litro bildu ziren.

ZUK ERE EMAN EZAZU ODOLA

Martxoaren 10an Usurbilgo anbulategian.


Bai, esan?

- | | | | |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkartea egoitza | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaua! aldizkaria | 36 03 21 |



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Dagoeneko 315 usurbildar bazkide ditu Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21. e-
mail: Noaua.
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagola
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal eta
Nieves Aranburu.

Administrazioa: Arantxa
Usaralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Eredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri
, Ainhoa Azpiroz, Mertxe
Olaizola.

Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,
Xelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.000 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esamen eta iritzien erantzunkizunik.



Zorionak!, merezi dugulako

Ana Aizpurua

Emakume langilea

Baliteke idatzi n hau prestatzeko, ordurik egokiena ez aukeratu izana, baina emakume langilea naitenez, ez zait "ordu txiki hauetan" jardutea beste erremediorik geratzen. Barkatuko dit irakurleak nerekin ados ez baldin badago edota esandakoa burugabekeria iruditzen bazaio.

Atal hau Emakumearen egunarekin lotuta egotera derrigor-tua dago, eta posible da azken bolada honetan gehigitxo aipatzea izana emakumearen gaia alde guztietatik.

Horregatik, saiatuko naiz gai korapilotsu eta marduletatik at, hitz garbi eta xumeetan ZORION BERO BAT bidaltzen emakume guztiei: Zorionak! Zergatik? Besterik gabe, merezi dugulako!

Egunero, eta askotan, ohar-tzen naiz emakumearen "lana" zein ederra den. Gogorra, noski, baina bakoitzaren "lan" hori ongi eta berdintasunean betetzean datza gure erronka. Egunero miresten ditut makina

bat neska eta andre.

Ez al da ederra ikasketetan gogor eustea ikas-maila igotzeko? Ez al da ederra lana lortzea eta besteak bezain langile ona izatea? Ez al da ederra etxekeandre izatea erabakiz gero, pozik eta gustora jardutea? Ez al da ederra ama izan nahi eta hezkuntza bidea jorratu ahal izatea? Ez al da ederra arlo guzti hauetan pasatako zailtasunak gainditu eta gero jasotako esperientzia nola gizarteratzen dugun ikustea? Hor gaude!

Ez naiz masokista, ezta gutxiagorik ere! Baina nere ikuspuntutik, eta berdintasunaren aldeko ahalegin guztiak eginaz, zeraz jabearazi naute: benetan emakumeak dugun ahalmena aparta dela. Lore asko bota nitzake, baina ziur naiz ez dugula inoren esker ona edo atseginarekin zain egon behar. Ereduarekin egingo dugu bidea, aurrekoek guretzat egin duten bezalaxe.

ARTIKULA HAUNDIKO LURRETAN JARRI DUTEN ZUHAITZPE TXAKURTEGI BERRIA

USURBIL
OPTIKA



Irazu kalea, 9-11, 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



Haur
jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 5943



USURBILLEN 500.000 pta. BILDU BAIETZ!

Horixe da Zuberoako Eperra Ikastolak luzatutako deiari erantzunez bildu garenon erronka. Hainbat herri-tarrez gain, Udarregi Ikastola, Etumeta AEK Euskaltegia, EHE, Noaua! Kultur Elkarte eta Aitzaga Kultur Elkarte. Jakin badakigu egoera ez dela xamurra, gure etxeetako poltsak ezagutu duela sasoi hoberik, baina halere helburuak ahalegin berri bat merezi duelakoan gaude. Zuberoa, euskara, neska-mutiko zuberotarrak diru premian daude.

Berriro ere erakunde publikoek, estatu frantsesekoek oraingoan, euskaldunoi bizkarra eman digute, eskera derrigortuz. Zuberoako haurrak euskaraz ikasteko, ikastola duin eta egokirik gabe utzi dituzte.

Indarrak bildu eta arazoari aurre egiten saiatu badira ere, diru premiak, laguntza eska-

tzera derrigortu ditu zuberotarrak. Eta ez da harrizkoa, Lasarten haina jende ez baita bizi herrialde guztian. Euskararen egoera berriz, larria da; gero eta jende gutxiago bizi da bertan, gazteak aldegitara behartuta, euskara galtzen ari da eta herrialdeko ikastola bakarra kolokan dago.

Horrexegatik, euskara gal ez dadin, zuberotarrek jarri dezaten, dirua biltzeko kanpaina bat martxan jartzea erabaki dugu. Helburua: Usurbilgo famili bakoitzak 1.000 pta. jartzea. Bildutako diru guztia Usurbilgo herriaren izenean emango zaio Eperra Ikastolari, apirilaren bukaeran herrian horretarako antolatuko den ekitaldian.

Bakoitzak ahal duena eman dezan bi kontu korronte ireki ditugu. Lagun ditzagun Zuberoako gure anaiak!

IÑIGO A.

EAJ-PNV-REN OHARRA

Noaua! aldizkarian E.A.J.-P.N.V.ren izena aipatzen denez, hauxe adierazi nahi diogu Usurbilgo herriari:

Azkenengo ez ohizko Udal Batzarrean (plenoan), ez gine-la azaldu dio eta gure ez azaltzeraren arrazoia, aurrez Udaleko idazkariari argi eta garbi azaldu genion. Alegia, Herri Batasunaren erabakiz hilabete honetan Udal funtzionamendua zeharo geldirik zegoenez, gu ez geundela prest beren manipulazioan erortzeko.

E.A.J.-P.N.V.ren iritziz egoera honetan, alkateak bere soldata ere, bertan uztea bidezkoa dela derizkiogu.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA USURBILGO URI BURU BATZARRA

Azken aleko komikia **Nagore Leozek** egindakoa zen, inprenta akats bategatik bere izena agertu ez bazen ere.

Txirikitutik



Txakurtegi berrian txakurak zaintzeaz gain, katuak ere badute beren tokia. Eta ez nolanahikoa! Argazkian "bezero" berezi hauentzat prestatu duten kaio-la erraldoia agertzen da.

PORTUARRUNE
ITURGINDEGIA
BAINUKO ALTZARIAK

Kale nagusia,2
Tlf. denda: 36 46 37 etxea: 36 52 99

MAHUKA
GAZTE DENDA
Udaberriko arropa berria laister

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

Buru-azalar enzainketa
The-apainketa

Etxebeste,3 Tel. 37 16 85



MANUELA AIZPURUA ARANA

Autopista egin zutenean bota zuten Usurbilgo Benta baserrian jaio zen 1915ean. Sei seme-alabetatik gazteena, Donostian eta Lasarten bizi izan zen gaztetan, ezkontzean Aginagako Mapil baserrira joanaz. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat leku ezagutzeko zortea izan du.



Usurbilgo lurretan jaioa, baina kaxkotik oso urruti. Askotan joaten zinen Usurbila?

Askotan ez. Gu gehienetan Donostiara joaten ginen. Ikasketak Igaran, Ibaetan egin nituen. Anai zaharrena Usurbilen ibili zen eskolan, baina ni eta nire anaietako bat Igarara joaten ginen. Usurbilgo udalak 600. urteurrenean atera zuen liburu beltzean azaltzen da gure klasea, 91. orrialdean.

Zenbat urterekin utzi zenion ikasteari?

12 urterekin ikasketak utzi eta Donostiara esnea saltzera joaten hasi nintzen. Goizeko zortziretan irtetzen nintzen, astoa esnez kargatu eta oinez esnea partizera Parte Zaharreko San Lorenzo kalera. Lehen ez zen izaten kotxe eta autobusik.

Eskolan baino gehiago ikasten zen kalean?

Nik uste baietz. Eskolan zerbait ikasi genuen, asko ez, baina defenditzeko haina. Etxetik kanpo asko ibilia naiz eta han ikasitakoak zerbaiterako balio izan dit.

Neskame ere egon omen zinen.

17-18 urtekin joan eta laupabost urte. Hilabetea lanean pasa eta sei duro irabazten nituen. Urte batzuren buruan nazkatzen hasia nintzen. Honela Txarako Inaxi eta biok, etxeoandreei erosketak egitera gindoazela esan eta ostegun batean Michelina joan ginen lan eskean. Ostegunean apuntatu eta astelehenean lanera. A ze larritasuna etxeoandrearari banindoala esaterakoan.

Zer egoeratan egiten zenuen lana?

Goizeko bostetatik eguerdiko ordubatera egiten nuen lan. Bentatik oinez joaten nintzen bakar-bakarrik. Ze beldur eramaten nuen nik goizeko ordu haietan...

Emakumeek etxean lan egin behar dute. Zer esango zenuke zuk honi buruz?

Etxetik kanpo lanean jo eta ke ibilia gara batzuk, pezetari ondo begiratu. Ez genuen askorik gastatzen orduan. Asko saiatu behar zen pezeta bat aurreratzeko. Garai hartan ez zen egun bezala irabazten eta gastatzen. Orain bezala irabaziak edukita zer egingo ote genduke... agian gaizki ikasi.

Baina zu angula saltzen ibilia zara.

Bai. Ezkondu nintzenean Michelin utzi eta negua Madriden pasatzen nuen angulak saltzen. Hasieran eskean bezala hasi nintzen, "parrokirik" gabe joan bainintzen. Gero egin nuen "parrokia". Egunean 100 kilo behar izaten nituen.

Urteetan hainbeste lan egin eta gero, zer moduz bizi zara orain?

Ondo esan beharko. Belaunak hutsegiten didate, baina tira. Astean bi egunetan Araetara gustora joaten naiz. Ostegunetan Txangurroa garbitzen lagundu eta igandean lasai bazkaldu. Hala ere, nahiago izaten dut etxeke lasaitasuna.

Atzo erriberan ikusi zintudan paseatzen.

la egunero ikusiko nauzu, eguraldi ona egiten badu behintzat. Hala ere, paseatzeko tokirik ez daukagu, toki txarra benetan. Bidearen ondoren ezin da ibili, kamioiak botatzen duten haizearekin, eta hango zalapartekin... ezin dut hura jasan. Erriberan ibiltzen gara Maria Luisa eta biok, nahiz eta loa sortzean etxean gelditu behar izaten dugun.

Eta etxean zer?

Telebista ikustea ez zait gustatzen. Goizetan Arrate irratia entzuten dut eta azken aldi honetan gantxiloa egiten ikasten ari naiz.

Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 2255



HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42

TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Patata egiteari ekin diote auzoko baserrietan

Patata egiteko garaia iritsi da ja. Aurten inoiz baino eguraldi aldrebesagoa izan dugu otsailean. Eguraldi onak txarrak baino gehiago izan dira eta martxoan ere bide beretik datorkigu. Honek izan du eraginik auzoko baserriarrengan. **Eguraldi eguzkitsuzak baliatu dira patata ereiten hasteko.** Honetarako, ordea, lehendabizi lurra goldetu



beharra dago eta gehienek traktorerik ez dutenez, **Igartza-zabalgo Santos**engana jo zuten. Honek, bere traktorearekin **sail gehienak goldetu** zituen. Lan ederra eman zioten. Ea udara aldean, orain eginitako lanak bere fruituak ematen dituen. Eskertuko genuke nahikoa patata izatea gure lurretan.

Bestalde, **herriko langileek** auzoko **jolas lekuko txirristak eta kolunpioak pintatu** dituzte. Premia bizia zuten, aspaldi honetan bere horretan utzita baitzeuden. Orain, bestelako itxura dute, **Txokoaldera** hurbiltzen diren haurrak ere lehen baino gustorago izango dira. Pozgarria da benetan, **udalak** auzoa txukuntzeko erakusten duen borondatea. Jarrai dezatela horrelaxe!

AGINAGA



**Luis
Aranalde**

Musika, liturgiaren ardatz

Txiki-txikitatik somatu nuen musikarako zaletasuna. Eta zorte handia izan nuen nire ikasketak egiteko garaian: pianoa eta organoa jotzen irakatsi zidaten; **hamasei bat urtez geroztik organojole** izan naiz.

Musikak nire heziketan garrantzi handia izan duenez rol berdina eman nahi nioke **Aginagako gaztetxoek kristau heziketa arloa** eta kultur esparrua lantzeko garaian.

Izan ere, **musikak**, egokia denean, **gogoeta** egitera bultzatzen zaitu, **otoitz** egiten laguntzen dizu, bizitzaren misterioak sumatzera gerturatzen zaitu...

Horregatik, parrokia arloan, lehen zegoen **korutxoari erreperitorioa osatzen laguntzen** diot, abesti berriak irakatsiz, musika idatziz; abestien estiloa eta edukia ere askotan zaintzen dut: garai bateko, batzuetan behintzat, kanta ilun, pesimista, triste haiek baztertzen hasi naiz autoestima eta sinismenaren poza azpimarratzen duten abestiak ipiniz. Dena den, korutxoaren zuzendaritza artistikoa **Xabier Pikabeak** darama.

Haur eta **gaztetxoekin egiten dut lan** batez ere. Horiek dira etorkizuna eta horiekin saiatu nahi dut batik bat. Elizkizunetan protagonista senti daitezela gustatzen zait eta horretarako ahalik eta gehien parte hartuerazten diet gure ospakizunetan.

Abesti berriak ikasi dituzte, aldeztu aurretik kanta horien letrak aztertu eta eztabaidatu

ondoren. Erreperitorioa berri-tzea ez da txantxetako lana, letrak egokiak izan behar dute eta gaztetxoentzat ulerkorak. Ez dute edozein motatako letrarik onartzen. Musikaren adaptazioak nik egiten ditut.

Miniorkestra bat ere eratu dugu bere bakarleri eta guzti; ia ospakizun guztietan jotzen dute piezatzoren bat. Musika saioak larunbatetan burutzen ditugu gehienetan, katekesia aurretik.

Kantek eta orkestratxoak **Aginagako gure gaztetxoek sensibilitatea fintzen** du, ospakizunei beste grazi bat ematen dio eta liturgiak asko irabazten du.

ATXEGALDE



**Amagoia
Mugika**

Eskaileraren egoera tamalgarriaz kexu

Oraingoan kexa batekin natorkizue, izan ere ez da txantxakoa **auzotar bati** gertatua. Lanera zihoala, eta autobusa hartzeko asmoz etxetik abiatzean, **harategi aurreko eskaileretan erori** eta min hartu zuen. Bere esanetan ez zihoan presaka, autobusa



hartzeko denbora nahikoa baitzuen. Ziurrenik eskailerak bustita egongo ziren. Kontua da **zortzigarren ornoa (bertebra) hautsi** zuela eta **elbarri geratzeko zorian** egon dela. Ospitalean aste pare bat pasa ondoren, bere egoera hobetuz doa eta etxean dago ja.

Jende ugari erortzen da eskailera hauetan, malda haundiegia baitago. Lehenago ere **beste auzotar batek "peronea" hautsi** zuen eskailera hauetan erorita. Tristeza bada ere, askotan honelako istripu larriren bat gertatu ezean ez zaiela gauzei konponbidea ematen. Espero dezagun oraingoan dagokionak zerbaitek egitea eskaileraren egoera hobetzeko, erdian barandilla bat jartzea adibidez. Besterik gabe, animo beroenak gure auzotar zaurituari. Eta lehen bait lehen osatzen den.

KALEZAR



Begoña Zubiria

Txikiardin farolak nahi dituzte

Pedro Mari Matxainek Txiki-Perdi Kalezarkoa zela aldarrikatzen zuen joan den astean. Honela, bada, kexu bat iritsi zaigu **Txikiarditik**. Bide konponketak eta errotanda berria egin aurretik **Asteasuain-zahar** aldean farolak jarriko zituztela agindu omen zitzaizkien. Lan horiek aspaldi amaitu zituzten eta **Txikiardin** lehen bezala jarraitzen dute, **farolik ez dute jarri**. Agindutakoa betetzea besterik ez dute eskatzen, farola batzuk ezartzea.

KALEBERRI



Nieves Aranburu


Potxoneko zuhaitza lotzea hobe?

Frontoiko estalki berriaren lanek aurrera darraite. Garraiolarien grebaren ondorioz egun batzuk geldirik egon ondoren, **lrazu kale** aldera, eta frontoi atzean, estalkia heutsiko duen zutabea egiten hasi dira. Hala ere, frontoiko estalki berria egingo dute, baina lehen frontoiari itsatsirik zegoen **bola tokia berreskuratzea** ere polita izango litzateke. Garai batean saio ederrak egiten ziren bertan, orain, berriz, **ia galdu da kirol hau**.

Bestalde, azken egun hauetan eguraldi onarekin esnatu gara. Otsailean egin ohi duen eguraldi txarra aurten ez da azaldu eta berogailua pizteko behar haundirik ez dugu izan. Haizea ere lasai ibili zaigu, eta eskerrak. Izan ere, **Potxoneko zuhaitza dantzan** jartzen da haizeak bere indarra agertzen duen bakoitzean. Ez egin barrerik. Gauzak konpondu ezean **ezbeharren bat gertatuko da** eta orduan izango dira negarrak. Hain zaila al da **zuhaitz honen egoera tamalgarria** konpontzea? Ez dut esaten bota egin behar denik, ez horixe; baina nolabait kable batzurenkin badaezpada ere lotzea ez litzateke ideia txarra izango.



SANTUENEA



Pako Agudo

Ingemar lantegiak harri biltoki berria laister

Diputazioak **Atalluko** lurren espropiazioa onartu ondoren, **Usurbilgo** udalak lurrak Ingemari adjudikatu zizkion. **Santuenean** jakin dugunez, laister hasiko da **Ingemar harri biltoki berria egiten**. Gas natura-



laren hodiak pasatzeko lanak amaitu dituzte eta ja biltokia egiteko lurrak prestatzen hasiak dira. **Harriak edukitzeko tokia lantegiaren aurrean**, bidearen beste aldean eraikiko dute. Denbora asko pasa da eraikuntza hau egiteko asmoa azaldu zutenetik, baina, baimenak ondo lotu ondoren, harri-biltoki berria egiteko dena prest dute.

Santuenean bizi garenok, aurten, **inoiz baino hurbilago dugu sagardoa**. **Aialdenean** zenbait sagardo kupel dituzte eta etxetik asko urrundu gabe sagardotegira joateko aukera ederra dugu. Asteburua hurbiltzen denean bete bete egoten da eta zubitik pasatzerakoan bertan sortzen den giroa nabari daiteke.

Azkenik, „kontuz santuenatarrokin. **Andatza K.K.E.k** martxoaren 8 eta 9rako antolatu duen **eski irteerara auzoko jende ugari doa**. Beraz, beste eskia-tzaileei oharra, badaezpada ere **Santuenekoengandik** urrun ibili.

H erorrek esan



Gurutze Atxega

San Esteban


Duela bi urte Ugarten egin genuen afaria, eta emakume asko bildu ginen bertan. Oso ondo pasa nuen. Pentsatzen dut aurten ere zerbait antolatuko dutela. Nik behintzat joan nahiko nuke. Eta Usurbilgo neska gazteak ere animatzen ditut.



Jon Sarasua

Kaleberri

Ondo iruditzen zait. Emakumeek ere egun bat libre izan behar dute, beti etxean ez dira egongo eta. Ahal balitz gainera, egun bat baino gehiago izan beharko lukete. Langileek maiatzaren 1 duten bezala, emakumeek ere berea dute.



Maria Jesus Zulaika

Puntapax

Oso ondo iruditzen zait, bestela beste 364 egunetan batere gabe geratzen garelako. Nik hala ere ez dut ospatzen, lanean jarraitzen dut. Baina beharbada aurten animatu eta ospatzen hasiko naiz,



Elena Maioz

Kalezar

Oso ondo iruditzen zait egun hori ospatzea, baina nik eskola zaharrekoa naizenez ez dut martxoaren 8ko eguna ospatzen. Guk urte guztian zehar berdin jarraitzen dugu lanean, berdin da ze egun den.

Zer iruditzen zaizu emakumeek martxoaren 8ko eguna ospatzea?



Ainhara Zapiain

Arratzain

Bai. Emakumeak hori merezi duelako gutxienez. Nik ez dut ospatu orain arte, baina gustatuko litzaidake adibidez koadrilako neskek egun honetan afaltzera ateratzea.



Joxe Mari Rezola

Atxegalde

Oso ondo iruditzen zait egun hau ospatzea. Egund berezi bat beraintzat hartzea ondo dago. Nire emazteak behintzat ospatzen du, afaltzera joaten da Usurbilgo beste emakumeekin.



Felix Zabaleta

Eguzkitza

Oso ondo. Emakumeek beren eguna izan behar dute, guk bezalaxe. Nik egun hau ospatzera animatuko nitzuke emakume guztiak. Eta egun gehiagotan ospatzen badute, are eta hobe. Zenbat eta giro gehiago, askoz hobe denontzat.



Juan Pedro Furundarena

Getaria

Niri ondo iruditzen zait martxoaren 8ko eguna ospatzea. Beraintzat hobe horrela. Hala ere, nire emazteak ez du ospatzen, nik dakidala behintzat. Baina badaezpada ez naiz gehiegi sartuko gai honetan, bestela...

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

MARTXOAK 8: EMAKUMEON HISTORIA PROPIOA

Martxoaren 8a ospatzen dela eta, errepa-so txiki bat eman nahi genioke egun honek Usurbilen eman duenari urteetan zehar. Noaua!ko irakurle gazteari ondo etorriko zaio egun hau zergatik aukeratu zen gogoraztea, edota zer arrazoi izan ziren emakumeentzat egun bat izendatzeko. Izan ere, badaude hainbat "Día mundial de..." delakoak motibo gutxiagorekin.

Data honen jatorria 1857an New Yorken kokatzen da. Lower East Side-ko oihalgintzan jarduten ziren emakumeen manifestazio bat egin zen "12 orduko lanaldia, soldata baju eta laneko baldintza txarren kontra" lemapean.

1908an, errebindikazioak berdinak ziren eta Clara Lemlich militante sozialistak parte hartu zuen greba orokorra deituz. Hurrengo egunean 20.000 langilek, emakumeak gehienak, lantegi guztiak gelditu zituzten. 13 astetan eskirolen erasoak, despidoak, gosea eta abar jasan behar izan zituzten, baina azkenean irabazi egin zuten.

1910ean, ekintza hauek gogoratuz, Kopenhagen bildutako Emakumearen Kongresu Sozialistak egun hau ospatzea proposatu zuen.

Usurbilgo historia

Hau dela eta, badira norberaren bizitzan garai aproposak pulamentuzko borrokari ekiteko, eta honela sortu zen Usurbilen, beste herri askoren antzera, emakume talde bat. Orain 12-15 urtetako kontu batez ari gara. Emakume

talde hura ez zen haundia, baina bai bizia eta dinamikoa. Bere helburua **gizartea emakume gaiet buruz sensibilizatzea** zen.

Helburu horren baitan, gai asko jorratu ziren eta guztiak mami haundikoak: **tratu txarrak, abortoa, emagin zerbitzua**. Beste batzuk, berriz, oraindik zintzilik jarraitzen dute:

- **Emakumea eta lanaldi bikoitza:** denek onartzen dute hori gertatzen dela, baina gizonezko, seme edota bikoteak ezer gutxi kezkatzen dira. Eta zer esan emakume baserritarraren egoeraz? Langile amorratua da, produkzioan parte hartze zuzena duena, eta ordainetan zer?

- **Emakumea eta publizitatea:** emakumearen irudia ustiatu egiten da eta gizonari objektu bezala eskaintzen zaio.

- **Sexualitatea:** antisorgailuei esker, emakumea egun bere sexualitatea lantzeko edo bizitzeko libreagoa dela esan genezake. Baina oraindik rol berezi asko dago gainditzeko.

- **Jostailuak:** hezitzaileetan ez dago arazorik. Baina aisialdi

edo jolaserako direnean, berriz, paper banaketa sexuairen arabera mantentzen da.

- **Elkarte gastronomikoak:** sukaldaritza etxean eta emakumeak egin denean, ez du batere meriturik. Soziedadean eta gizonezkoak badira sukaldari, hori bai ohitura ederra! Eta tradizioa? Nola eusten dioten batzuk ezberdintasunak markatu eta ohorezko lekua izateko denean...

Garai haietan "Pil-pilean" zeuden gai hauek eta, hitzaldi, zinema eta tertuliaz gain beste hainbat gauza ere egin ziren: irriti saio ugari Paotxa irradian "Mutxurdinen" eskutik, herriko emakumeen antzerki emanaldiak, lehenengo emakume bertsolarien emanaldiak...

Ezin kexatu egindako lanaz eta parte hartzeaz, baina erreleboa falta da. Zer pentsatzen dute oraingo neskek? Ez dugu uste gaiak inondik inora indarra galdu duenik.

Badira hiru urte emakume batzuk inongo bilera eta prestakizunik gabe, ideiarri heldu eta telefonoa hartuz, egun hau antolatzen dutela. Gogoia eta ilusioa kutsatzen saiatzen dira, eta aurreko bi urteetan lortu dute jendearen parte hartzea. Gainera, ekitaldia eta bazkari-afaria batera datoz, egun berean. Jatetxe batean egin ohi da, guretzat bakarrik antolatutako jangela batean.

Hemendik, emakume guztiak animatu nahi ditugu horrelako aukerarik gal ez dezaten. Egun hau askorentzat ez da garrantzizkoa izango, baina garrantzia du.



Arg: Argia



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

TXAKUR ETA KATUENTZAKO ETXE BERRIA

Otsailaren 21ean "Zuhaitz-pe" txakurtegi berria inauguratu zuten Gipuzkoako Animalia eta Landareak Babesteko Elkarrekin (GALBE) Artikula txikiko lurretan. Instalazio hauetan txakurrak eta katuak zainduko dituzte.

Txakurtegi arduradunek adierazten dutenez, aspalditik zegoen kalean bakarrik dabil-tzan txakur eta katuentzat horrelako babesgune bat egiteko asmoa. Elkarrekin honek Donostiako Altza auzoan zuten Villa Lolita egoitza, egoera kas-karrean zegoela eta, 1989an eraitsi behar izan zuten. Horretaz gain, bizilagunak ere kexu ziren animaliak zirela eta.

Txakurtegi berriko zuzendaria den **Francisco Baz**-en esanetan, "1993. urtetik aurrera hasi ginen planteatzen egoitza berri baten eraikuntza. Artikula txikiko lurra erosi ondoren, Gipuzkoako diputazioa eta Donostiako Udalarekin hitz eginen hasi ginen. Ondoren gure proiektua aurkeztu eta onartu egin zuten. Eta horrela gaur arte".

Txakurtegiaren eraikuntzan

85 milioi pezeta gastatu dira. Horietatik 45 Gipuzkoako Diputazioak ordaindu ditu, 10 milioi pezeta Donostiako Udalak eta gainontzekoa berriz elkarrekin bazkideek jarri dute. Finantziabide hauetaz gain ordea, Animalia eta Landareen Babeserako Elkarrekin Gipuzkoako zenbait herrirekin ere hitzarmenak sinatu ditu. Txakurtegi zuzendariak azaldu digunez, legearen arabera beharrezkoa da herri bakoitzak era honetako eraikuntza bat edukitzea. Baina hau garestiegia denez, legeak onartzen du hauek bezalako elkarrekin hitzarmenak sinatzea.

Hitzarmenak herriekin

Hauen bidez egoitzaren gastuei aurre egitea espero dute. Donostiako Udalak urtean 9 milioi pezeta ordainduko dizkio. Usurbilgo Udalak egin duen hitzarmena berriz, 400.000 pezetakoa da, urtealdiko 20 txakurren zainketa aurreikusten direlarik. Kontuan izan behar da txakur bakoitzaren mantentzea 20.000 pezetakoa dela lehen 30 egunetan. **Jose Antonio Alfunaren** iritziz,

"GALBEk ez zuen nahi txakurren kopurua mugatzen zuen hitzarmenik (beste herri guztietan hori egin dute). Baina gure ustez puntu hau garrantzitsua zen eztabaidatzea, izan ere, pertsona batek txakurraz libratu nahi izan eta berak berak egin beharrean Udalaren kontu izateko kalean uztea gerta liteke". Astigarraga, Urnieta, Orio, Zumaia, Hernani, Hondarribia eta Lezok ere hitzarmena sinatu dute, besteak beste. Franciscok adierazi digunez, "hitzarmenaren arabera, herri hauek txakur edo katu abandonatzen bat aurkitzen badute, txakurtegiara deitu eta gu bila joango gara".

Euskal Herri mailan ez daude etxeko animalia hauentzako egoitza asko. Bizkaia guztian adibidez, Getxo eta Santutxun aurkitzen dira antzeko egoitzak. Gasteizen ere badago. Baina Franciscoren esanetan estreinatuta berri den txakurtegi hau Espainia mailako onena da. "Orain arte Donibane Lohitzuneko errefugioa hartzen zen erreferentzia bezala, baina Usurbilgoarekin marka guztiak hautsi dira. Egoitzak eskaintzen dituen zerbitzuez gain, tokia ere ezin hobea delako: zabala eta baserri hurbilenetik gutxienez 500 bat metro tara".

Zerbitzu ugari

Txakur edo katu bat txakurtegiara iristen denean lehenik eta behin garbitu eta desparasatzen dute. Ondoren, txertoa eman eta mikrotxipa jartzen zaio, txertoa emanda dagoela jakin eta galtzen bada ere identifikatzeko. Gero, etxolara eramaten dituzte. Etxola bakoitzean 8 txakur sartzen dituzte gehienez, era honetan lasai ibiltzeko aukera izaten dute. Txakur bakoitza gainera



Etxola bakoitzean gehienez zortzi txakur sartzen dira. Horregatik hauen garbiketarako kentzen die langileei denbora gehiena.

bere izaeragatik etxola batean edo bestean sartzen dute. *"Txakurra ona edo lasaia bada etxola batean jartzen dugu, urduria edo agresiboa bada, beste batean. Saillkapen honetaz gain, arrak eta emeak ere banatu egiten ditugu, agerian dauden arrazoiengatik, noski".*

Zazpi pertsonak lan egiten dute klinika ere baden txakurteg honetan: bost garbitzaile, administrari bat eta albaitari bat. Une honetan 64 bat txakur daude bertan. Horregatik, hainbeste animalia batera dauden tokian, oso garrantzitsua da garbitasuna. Garbitzaileek etxolak mageraz garbitzen ditzuten bitartean, txakurrak atari haundi eta ireki batetara ateratzen dira, ikastolako jolas-garaia izango balitz bezala. Bestetik, txakur-
ren bat gaixo edo zaindu egin behar bada, apartaeko



txabola batean jartzen dute.

Txakurra edo katua eraman

"Zuhaitz-pe" txakurtegiaren helburua animaliak jaso eta hauentzako etxeak aurkitzea da. Animalia txakurtegiara iritsi eta 30 eguneko epea uzten da jabea azaltzen bada ere.

Mikrotxipa baldin badu jabea bilatzen saiatzen dira. Behin epe hori pasata, txakurra edo katua etxera eraman daiteke. Hori dela eta, egunero-egunero, goizeko 10etatik arratsaldeko 14etara txakurtegiako atea zabalik daude edonorentzat. Txakurra eramateagatik ez da ezer ordaindu behar. Baina txakurtegiaren jartzen zaizkion txerto eta mikrotxipak 6.000 pezeta balio dute.

Inork jaso nahi ez dituen txakur eta katuak instalazio hauetan jarraitu ahal izango dute, baina leku arazorik egongo balitz (104 zakur gehienez), gaiso edo egoera txarrean

daudenak hilko lituzkete.

"Irtentzako hau azken muturrekoa izango litzateke".

Zerbitzu hau jasotzeaz gain, txakurtegi berriak ere oportetara joatean edo dena dela oarengatik zure laguna zaindu ezin baduzu, bertan pentsioan utz dezakezu. Horretarako, bertako animaliegiatik aparte dauden etxola berezibatuetan jartzen dituzte.

Franciscoren esanetan, *"nahiz eta duela gutxi zabaldu gure atea, jadanik txakur ugari adoptatu dituzte. Normalean ez dira ideia oso finkatuarekin etortzen, denak ikusi eta gehien gustatzen zaiena eramate dute. Era eta mota guztietako jendea hurbiltzen da hona: zaharrak, gazteak, emakumezkoak, mutilak..."*.

Animaliak gustuko badituzu, edo besterik gabe txakurtegi berriari begiradaxo bat eman nahi badiuzu, Arratzaindik gora edo Aginagatik Urdairako bidea hartu besterik ez duzu; autopista pasata aurkituko duzu txakurtegi berria. Bestela, informazio gehiago nahi baduzu gai honen inguruan, 58 09 06 telefonora deitu dezakezu.

Idoia Torregarai



Txakurrak beraien izaeragatik banatzen dituzten etxoletan: lasaia alde batetik eta urdurioak bestetik.

UDALAREN ALDEKO EPAIA EGUZKITZA BASERRIKO BIDEAREN AUZIAN



Aspaldian ixilik zegoen **Eguzkitza baserriko bidearen kontua**. **Usurbilgo udalak** Aginagako pasabide hori **publikoa** zela aldarrikatu eta **Eguzkitza baserriko jabea demandatu** zuen, honek ez baitzion inori pasatzen uzten. 1996ko apirilean **Luis Jesus Arizmendiren** aldeko epaia eman zuen epaitegiak, baina udalak apelazioa ezarri ondoren **Gipuzkoako Probintzia-Auzitegiak** bertan behera utzi du aurreko sententzia. Hauen esanetan aurreko epaiak ez zituen kontutan hartu bide horren inguruan dauden beste lursailetako jabeen eritzia. Biren bitartean udalak espropiazioarekin jarraitzen du, bide hori herribide bihurtu nahian. **Eguzkitza baserriko** jabeak orain arte espropiazioari aurre egiteko bere alde zegoen sententzia erabiltzen zuen, baina hemendik aurrera ezingo du hori egin.

HAGIN BERRIAREN ZAIN DAGO ERROTONDA

Azkenean errotondako **haginak** ez zuen bere gaixotasuna gainditu eta erabat ihartu zen. Análisi eta tratamendu desberdinak egin ondoren **Phytophthora** gaixotasuna zuela ziurtatu zen. Hau da, zainetan onddo batzuk hazi zitzaizkion. Ez dakigu, ordea, gaixotasun hori Belgikatik ekarri zuen ala hemen sortu zitzaion.

Belgikako saltzaileak ere arduratuta agertu dira prozesu guztian eta beste hagin bat ekartzeko prest azaldu dira. Azkenean, beraz, hagin berri bat ekarriko da errotondarako erdi prezioan.



LARRUA TRUK TALDEAK DISKA BERRIA KALERATUKO DU APIRILEAN



Larrua Truk taldea jo eta ke ari da lanean Lazken asteetan. Momentu hauetan beren lehen diskoa grabatzen ari dira eta apirilaren erdialderako kalean izango delakoan daude. Grabazioekin jarraituz, martxoaren 8an **Arrasateko SHOT** estudioetan **R.I.P taldearen "Incorruptible" abestiaren bertsioa** grabatuko dute. **SHOT**-eko jendeak diskoetxe berri bat sortu dute eta Euskal Herriko talde ezberdinek eginiko R.I.P taldearen abestien bertsioekin disko bat kaleratu nahi dute. Bertan, **Momau, Brigada Slam, Dut, Psicophony, Anestesia** eta beste hainbat taldeko parte hartuko dute. Disko hau maiatza edo ekainean egongo da kalean.

UDALA BERRIZ ERE LANEAN

Martxoaren 10ean **udalgintza lanak martxan** jarriko dira. Aste horretan, Batzorde Informatibok, Gobernu Batzordeak eta plenoak normaltasun osoz funtzionatuko dute **Otsailaren 5etik udalgintza lanak geldirik** egon dira. Herri Batasunako zuzendaritza politikoko kideak atxilotzen hasi zirenean H.B.ko Alkate eta zinegotziek eztabaida politikorako baldintza demokratiko minimoaren ezean, Udalgintzako zenbait ekimen bertan behera uztea erabaki zuten. Orduanik udalgintza lanak geldirik egon dira. **Martxoaren 10etik 16ra** udalgintzako ekimenak egingo badira ere, **ez dago argi. datozen asteetan martxan jarraituko duten ala ez.**



Udaleko Euskararen Aholku Batzordeak antolatatu duen **erakusketa mugikorra** duzue irudian. **Usurbilen euskararen egoera** eta **UEMaren helburuak** ezagutarazi nahi dituen erakusketak **Txokoalden** egin du lehen geltokia. Martxoaren 9 arte bertan egongo bada ere Auzoz-auzo ibiliko den erakusketa **Aginagan** izango da martxoaren 10etik 16ra. Hirugaren txanda berriz, **Santueneari** egokitu zaio, martxoaren 17tik 23ra. Erakusketarekin batera auzo bakoitzean oraindik zehaztu gabe dauden ekitaldiak ikusteko parada izango da.

PELOTA PORRA BERRIA TABERNETAN

Andatzpe-Peña Pagolako pilota batzordeak lehen mailako buruz-buruko pelota txapelketaren **porra** antolatu du. Bertan, **txapel-duna, txapeldunordea** eta **finala zen-**

batean amaituko duten asmatu beharko da. Inork ez badu asmatzen gehien gerturatzeko denak lortuko du saria. Irabazle eta bigarrenaren izenak ematerakoan kontutan izan finalera iristeko pelotariak bi

eskaileretan banatuta daudela. Beraz, eskailera berdinean daudenak ezingo dute finala jokatu. Porra honetan partehartzeko **epea Apirilaren 5ean amaituko** da. Apustuak **200 pezetan** egin daitezke eta **bi sari** banatuko dira: sari bakoitzean **bi afari Usur-bilgo sagardotegi batean.**

BERTSO AFARIAK USURBILEN

Bota Punttuba bertso eskolak antolatutako **bertso afarian** jende asko bildu zen Mahaspildegin otsailaren 22an. **Agirre** eta **Mendiluze** bertsolariez gain, beste hainbat "bertsolari"-ren bertsoak entzun omen ziren. Martxoaren 1ean **Arratzain** sagardotegian egin zen beste bertso afaria. Hau Euskadi irratiak zuzenean eman zuen.



Andatza K.K. Ek iraupenezko eski irteera antolatua zuen **Iratira** otsailaren 23rako. Elurrik gabe ezin eskiatu eta horregatik **Orhi mendira** igotzeko asmoarekin abiatu ziren goizeko 6.00etan bildu ziren dozenaerdi bat mendizale. Hala ere, zorte txarra! Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta euriaren eraginez **ezin izan zuten Orhira igo**. Hau ikusita bertako herrietan turismoa egitea erabaki zuten. Irudietan ikusten denez umorez hartu zuten eguraldi txarra.



Andoni Aizpurua Usurbilgo judokak **brontzezko domina** lortu zuen 16 urtez azpikoetan Frantziako **Laval herriko** txapelketan. Otsailaren 22an jokatu zen **nazioarteko txapelketa** honetan Alemania, Holanda, Frantzia Portugal eta beste hainbat herrialdeko judoken aurka neurtu zituen bere indarrak. Azkenean, 50 kiloz azpikoetan eta 73 judoken artean **hirugarren postua** eskuratu zuen Andoni Aizpurua usurbildar gazteak. Jarraitu horrela eta zorionak!

KIROL KOPLA



Xabier Eizagirre

Usurbildar askok arrarotzat hartuko duten kirol bate-taz hitzegingo dut ale hone-tako kirol koplari. Ba al zene-kien SEI SIN RYU eskolak lau urte daramatzala Usurbilen aintzinako kirola den karatea erakusten? Halaxe da ba, gezurra badirudi ere.

Koitxi Yaezakura arte mar-tzialen maisua orain dela 25 urte inguru etorri zen Euskal Herrira, eta bere eskutik sortu zen usurbilgo kiroldegian karate eskola hau. Gaur egun, ume eta helduen artean, hogeit hamar inguru ibiltzen gara elkarri kolpeka. Noski, umeak alde batetik eta hel-duak bestetik. Gezurra badi-rudi ere, beste kirol askotan baino lesio gutxiago izaten ditugu.

Arte honen erakustaldi bat ikusi nahi duenak aukera ezin hobea izango du datorren martxoaren 16an. Oiaro kiroldegian Gipuzkoa mailako umeen erakustaldia eta kadeteen txapelketa egingo da.

Bestalde, SEI SIN RYU eskolak urtean zehar antolatzen dituen lau azterketetatik bat Usurbilen egingo da martxoaren 23an. Azkenik, ekainaren hasieran umeen beste erakus-taldi bat iragarrita dago. Arte eta kirol desberdin bat ezagu-tu nahi baduzue ez galdu aukera hau.

Ikusteaz gain karatean jar-dun nahi baduzu astearte eta ostegunetan kiroldegian aur-kituko gaituzu. Azaldu zaitez-te, zuen gorputzak benetan eskertuko du.

USURBILDAR GAZTEAK NAGUSI ANOETAN

Beñat Lorenzo, Xabier Izeta, Julen Otsagabia, Imanol Agirretxe eta Egoitz Mendikute dituzue irudian. Udarregi ikastolan 4. maila egiten ari dira. 9-10 urte dituzte eta futbola oso gustokoa dute. Zer egin duten? Martxoaren 7ean, euskal derbiaren bezperan, Canal + telebista kateak antolatzen duen txapelketa irabazi zuten.

Gustora zeuden bostak. Astelehen arratsaldean ikastola-tik ateratzean harrapatu geni-tuen. Irribarrea aurpegian, aste-buruan irabazitako kamisetak jantzita, egindakoa oraindik sinestu ezin balute bezala zeu-den. "Guk ez genuen uste ira-baziko genuenik. Futbolean jokatzera, ondo pasatzera joan ginen, baina azkenean txapel-keta irabaztea lortu genuen".

Benjamin mailan parte hartu zuten, Gipuzkoako beste 9-10 urteko haurrekin batera. **Imanol Agirretxeren** amak izena eman eta larunbat goizean Donostiara joan ziren. "Uste genuen goizean jokatu behar genuela, baina azkenean arratsaldean jokatu genituen partiduak". Horrela, goizean Udarregiko frontoian zertxobait entrenatzeko denbora ere izan zuten gaztetxo hauek.

Taldeari "**Letxus**" jarri zioten izena. "Elastikoak berde kolore-koak eraman genituen eta le-txuk berdeak direnez "**Letxus**" izena jarri genion taldeari. Partiduak ikusten ari ziren ezeza-gun batzuek gu animatzen gin-tuzten baina "**Letxus**" esan beharrean "**Letxuk**" esaten zuten".

Anoetako futbol zelaiaren ondoan jokatu zituzten partiduak. Hiru jokalarik jokatzeko zuten, atezainik gabe eta baloia etengabe jokoan zegoen leku itxi batean. "Hasieran lau talde geunden. Denok elkar-rron kontra jokatu genuen, eta onenen aurka bana berdindu. Hala ere finalerdietara gu sailkatu ginen. Ondoren errazagoa izan zen. Finalerdia 6 eta 3 irabazi genuen eta finala 4 eta 1". Azkenean partidurik galdu gabe itzuli ziren etxera.

Hainbat sari jaso zituzten. Bi elastiko, galtzak, "questra" baloia... eta urrezko domina ere bai. Hala ere, erregalorik haundiena telebistan ateratzea izan zen. Realak eta Athletikek jokatu zuten derbia baino lehen Canal+ telebista kateak eskaini zuen saioan irten ziren igande arratsaldean. Derbia baino gehiago usurbildar gaztetxo hauek egindakoaz gehiago hitz egiten zen Usurbilen.

Oraingoz, bostok futbola dute kirolik gustokoena eta datorren urtean Udarregi ikastolarekin futbolean jokatzeko asmotan dira. Zer izan nahi duten haunditan? Futbolariak.

Josu Aranberri



Ezkerretik eskuibira:
Goian,
Xabier Izeta,
Imanol Agirretxe eta Egoitz Mendikute.
Behean
Beñat Lorenzo, Julen Otsagabia,

ZAZPI KILOMETRO EUSKAL HERRIA KORRIKA! OHIUKATUZ

Korrika 10 datorrela! Bi urteko atsedenaldiaren ondoren arineketan dator berriz ere Korrika. Aurten 17 urte beteko dira AEKK antolatzen duen ekitaldiak lehen pausoak eman zituenetik. Orain arteko edizioetan Euskal Herriko txoko guztietara iritsi da euskararen ohiartzuna eta aurten ere ez du huts egingo. Usurbilera, hasi eta berehala iritsiko da. Martxoaren 15ean, larunbatean, goizeko hamarrak aldean, Zubietako hipodromoko zubian Lasartekoei lekukoa hartzearekin batera 7 kilometroko ibilbidea egingo du Usurbilgo lurretan.

Arantzazun hasiko da aurten Korrika martxoaren 14an eta 23an Bilbon bukatuko da. Bederatzi egunez euskararen mezua zabalduko du Euskal Herri osoan zehar. Euskal Herria korrika! lelopean 2.150 kilometro egingo ditu gelditu gabe, gau eta egun milaka eta milaka pertsonak emango diote bere bultzadaxoa euskarari.

Hamargarren Korrika honetan Aita Villasante, Arantzazuko frailea eta Euskaltzainburu ohia eta, orokorrean, euskara urteetan zehar bizirik mantentzen lagundu duten guztiak omenduko dira. Horregatik, eta beste hainbat arrazoi ahaztu gabe, Arantzazutik abiatuko da edizio berri hau. Izan ere Oñati gaineko santutegia euskararen gordeleku izan da urte luzeetan zehar. Euskararen batasuna bultzatzeko bidean lan asko egin da bertan. 1968. urteko euskaltzaindiaren biltzarrean adibidez, eman zitzaion euskara batuari bultzada nagusia. Guzti hau omenduko du 1997ko Korrikak.

Korrika 10 honek badu aldaketa garrantzitsu bat. Orain arte 18.000 kilometro baino gehiagoko ibilbidea eginez, Euskal Herri osoan hainbat eta



Arg: Joseba Beriozabal

hainbat euskaldunen eskuetan joan den lekukoak atseden hartuko du 10. edizio honetan. Remigio Mendiburuk egin zuen bederatzi aldiz erabilitako lekukoa, baina aurten ez da Euskal Herriko bideetan ibiliko. Honen orde, Juan Gorriti eskultoreak eginiko beste lekuko batek jarraituko du euskararen ohiartzuna.

Usurbilen noiz?

Usurbila, korrika martxoaren 14an etorriko zaigu, goizeko hamarrak aldera pasako da gure herritik. Aurten, neke haundirik gabe iritsiko da Usurbila, izan ere 17 ordu bakarrik izango ditu bizkar gainean. Zubietako hipodromoko zubian hartuko zaie lekukoa Lasartekoei, eta hortik aurrera Usurbildik zehar 7 kilometrotan ibiliko da lekukoa. Zubitik Zubietako bidea hartuko du Korrikak. Lehen kilometroa Iturralde etxean bete, Aliriko zubia pasa eta Txikiardi aldera jarraituko du, bigarren kilometroa Txuloeneko Stop-ean egongo delarik. Hemendik, N-634 errepidea hartu eta Usurbil aldera abiatuko da. Hirugarren kilometroko lekuko aldaketa Txaran egin Kaleberrin sartu, udaletxe parean laugarren kilometroa bete

eta kalezarrerako bidea hartuko du. Bosgarren kilometroko lekukoa eraman behar duena Kalezarko ikastola zaharrean egongo da zain, ondoren Troyako aldapa jeitsi, errepide nagusian sartu eta Txikiardi sarreran (lehengo Lokaten) bere ibilbidea amaitzeko. Jadanik seigarren kilometroa egiteko prest egongo gara. Izan ere Luzuriagako lantegi parean kokatuko da Usurbili dagokion zazpigarren kilometroa. Kilometro banaketa aurrez egiten denez, martxoaren 13an bilera egingo da Etumeta euskaltegian arratsaldeko 7.00etan.

Udaletxeko kamioia atzetik

Luzea eh! Lasai egon. Ez duzue ibilbide osoa egin beharrik. Lehenik eta behin goizeko 9.00ak aldera udaletxeko kamioiaz jendea Zubietako hipodromora eramango da korrikaren lekukoa hartzeko. Ondoren, bidean ezinean gelditzen direnak jaso asmoz Korrikaren atzetik etorriko da Luzuriaga arte. Dena den, Korrika etorri baino lehen eta ondoren hainbat ekitaldi burutuko dira Usurbilen. Korrika txiki, ipuin kontaketak, magoak, herri bazkaria, Mus txapelketa...

Josu Aranberri

ZUBERORAKO 500.000 PEZETA BEHAR DIRA

Mauleko Eperra ikastola-ko haurrek ikasgela berriak estreinatuko dituzte datorren irailean. Udalak suela hamar urte ikastolarentzat egin zituen eraikin aurrefabrikatuak oso egoera txarrean daude eta, Habia gurasoen elkarteak Sohütan egiten ari diren ikastola berria ordainduko duen kanpainia martxan jarri zuen Habia guraso elkarteak pasa den utarrilean.

Eperra ikastola 1972. urtean sortu zen. Lehenengo hamar urteak leku finkorik gabe, azkenean Udalak orain dauden etxe aurrefabrikatuak egin zituzten. Egun, ikastola zaharren egoera penagarria da: euria egiten duenean ura sartzen da geletara, lurreko egurra ustelduta dago ja eta azken urte hauetan haurren kopurua gorantz joan denez, leku eskasia ere nabaritzen ari da (egun 70 haur dauka ikastolan). Egoera hau ikusita, Habiak Sohütan dagoen baserri bat erosi eta ikastola berria han jartzea erabaki zuen.

Bizpahiru urtetan Habia Zuberoako botere publikoekin hitz egin du ikastola berriaren proiektua bere gain hartuko lukeen bitartekari publiko baten bila; baina ahalegin guztia alferrikakoa izan da, udaletxe gehienak irtenbide horren aurka agertu baitira.

Ipar Euskal Herrian orokorrean eta bereziki Zuberoan ikastolen ardura izugarria da, azken urte hauetan euskara atzeraka baitijoa. Ikastolak bermatzen dute gure hizkuntzaren bizi iraupena.

Eperra ikastola berriak ordea, 40 milioi pezetako kostua du. Habiak zuen dirua eta banketxeek eskatutako kredituak diru-ko-puruaren erdia osatzen dute (20 milioi). Beste erdia lortzeko beste ikastolen laguntzarekin eta kanpainarekin kontatzen dute.

Usurbilek ere lagundu

Usurbileraino ere iritsi da kanpainia honen oihartzuna. **Aitzaga Elkarteak** aspalditik ditu loturak orokorrean Ipar Euskal Herriarekin eta Zuberoako jendearekin bereziki. Adibide mo-duan hor daude antolatutako di-tuzten maskaradak edo eta poesia saioa. Hori dela eta, Habiak kanpainia martxan jarri baino lehenago pentsatu zuten ikastola berriari laguntza

ematea. Beraiek talde eragileak izan dira, baina hauetaz gain, **Udarregi Ikastola, Eumeta AEK euskaltegia, Noaual** eta beste zenbait herritarrek ere kanpainia aurrera eramaten ari dira. Pentsatu eta egin ere egiten ari dira: 500.000 pezetako diru-laguntza lortu nahi du herrian ikastola berriari emateko. Nola ordea?

Aitzagako kidea den Joseba Berriozarrek adierazi digunez, *"gure nahia Usurbilgo familia bakoitzak 1.000 pezetako diru-laguntza ematea da. Badakigu Zuberoa urruti geratzen zaiola askori, baina ahalik eta sentsibilizazio haundiena lortu nahi dugu"*. Hau posible egiteko, Aitzaga Elkarteak herriko elkarteekin hitz egiten ari da bakoitzaren inguruan dabilen jendeari mezu hau eskutitzen bidez iristarazteko. Laguntza eman nahi duenak Euskadiko Kutxako 140.0.01113.3 zenbakian sar ditzazke 1000 pezetak.

Usurbilez gain ordea, hegoaldean Santutxu, Arrasate, Aretxabaleta, Basauri, Durango, Pasaia, Burlata, Kasedan eta beste zenbait herritan ere Eperra ikastolari beraien laguntza emateko ekintzak ari dira antolatzen. Guztiek batera, 600 kilo ezti erosi dituzte. Eztiaren salmentagatik ateratzen den dirua ere Zuberoa joango da.

Habiaren kanpainia apirilean maituko da, eta bildutako diru guztia herri bazkari bat eginez emango zite Zuberoako lagunei. Primerako amaiera helburu on batentzat.

Idoia Torregarai



Kanpainaren bidez 500.000 pezeta bildu nahi dira Usurbilen. Guztia Eperra ikastola berriari emango zaizkio.



Aginaga
☎ 36 27 73

SEKAÑA BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Auleta eta Arraia



Elkaitze

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

Usurbilgo baserri honetara abiatu gara, baina ezinezkoa izan zaigu, duela urte batzuk bota baitzuten. Ba al dakizu

zein baserritaz ari garen?


Erantzuna baldin badakizu, alferkeriak uti eta idatzi! Gure buzoi-ko ahoa irekita dago 24 orduz, eta **Antxeta** jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi nahi baduzu... badakizu!



"Sorpresa hartu nuen lehiaketa irabazi nuela jakitean" dio **Araitz Maeztuk**, "baina sorpresa atsegina, hori bai!". Ba, orain, sorpresa horren atzean dagoena **Zumeta** jatetxean dastatzeko aukera izango duzu. On egin!

Usurbilgo erretoki zaharreraino joan ginen aurreko alean eta zera galdetu genuen: nork egin zuen erretokia eta noiz itzali zen. **Joxe Tolosa** izan zen erretokia egin zuena eta itzali, berriz, **1990eko apirilaren 2an** itzali zen. Itzali ez, baina animoak piztuko zaizkiona **Etumeta euskaltegiko 1. urratseko taldea** izango da, beraiek izan baitira oraingoan irabazleak. On dagizuela **Tragoxka** tabernako afaria!

komikia




Aitziber Elortza

BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2
Tlf. 36 40 58




ZUMETA JATETXEA
Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsaladahozber oatrufa zaporez
- Zapoatxangurr ozbeteriketaittsaki saltsaz
- Aspizunapatatapur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxekoazkenburukoendegustazioa
- Ardo bereziaetakafea

Bakoitzak 3.200pta.



TABERNA

San Esteban kalea, 1
Usurbil

Tlf 36 00 80

MARTXOAK 7 ostirala

- **Guraso eskolak** berriztatze ikastaroan egindako lanen **erakusketa** antolatu du. **Udarregi Zaharrean 18.00etatik 20.00**etara.

MARTXOAK 8 larunbata

- **Guraso eskolak** berriztatze ikastaroan egindako lanen **erakusketa** antolatu du. **Udarregi Zaharrean 18.00etatik 21.00**etara.

MARTXOAK 9 igandea

- **Usurbilgo Udalak** eta **E.K.Tk Zuhaitzaren eguna** antolatu dute. **Zuhaitz landaketa** eta **txori habiak** jarriko dira. Goizeko **10.30**etan **Gorostitxo-gaineko azpialdean** (zabortege zaharrean).
- **Guraso eskolak** berriztatze ikastaroan egindako lanen **erakusketa** antolatu du. **Udarregi Zaharrean 12.00etatik 14.00**etara.

MARTXOAK 10 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotodan. Arratsaldeko **20.00**etan.

MARTXOAK 12 asteazkena

- **Andatza K. K. E.-ak** antolatuta, Joseba Ugalderean **"25 igoera Alpeetan"** bideoa ikusteko aukera izango dugu. **Udarregi zaharrean**, arratsaldeko **20.30**etan.

MARTXOAK 13 osteguna

- **Korrika 10** ospatzeko, gaur **bideoaren aurkezpena** egingo da gaueko **22.00**etan **Irrati** eta **Zendoia** tabernetan.

MARTXOAK 14 ostirala

- **Korrika 10**eko ekitaldien barnean, **Korrika txikia** igaroko da **15.00**ak

Usurbilgo odol Emaleen Elkarteak jakinarazten du datorren **martxoaren 10**ean, goizeko **7.00**etatik **9.00**etara aurrera **odola eman** nahi dutenak usurbilgo **Anbulategira** azaldu dadila.



aldera herrian zehar **Udarregi ikastola** eta **Agerialde ikastetxeko** haurrekin.

Arratsaldeko **18.00**etan **Ixabel Agirresarobek** ipuin kontaketa egingo du **Udal** liburutegian.

Gaueko **22.30**etan **Xanti ma-goak** bere trebetasunak erakutsiko ditu **Txurrut tabernan**.

- **Aitzaga Kultur Elkarteak** antolatuta, **Ekuadorri** buruzko **bideo emanaldia** ikusteko aukera izango dugu. **Aitzaga Elkarte**an arratsaldeko **19.30**etan.

MARTXOAK 15 larunbata

- **Korrika 10** ospatzeko ekitaldien barnean: goizeko **8.00**etan **txokolate banaketa** frontoian.

Goizeko **9.00**etan jendea **kamioiez hipodromora** eramango da **Korrikaren lekukoa** hartzeko.

Goizeko **10.00**etan **Korrika 10**aren etorrera!!

Eguerdian trikitilariekin kalejira egingo da herriko kaleetan zehar.

Eguerdiko **14.00**etan **herri bazkaria** egingo da **Agerialde ikastetxean**. **2.000** pezeta.

Txartelak Txiriboga eta **Aitzaga tabernetan**. Ondoren **erromeria**.

- **Larrua Truk** taldeak **kontzertua** eskainiko du **Aranda de Dueroko Josfen aretoan**.

MARTXOAK 17 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotodan. Arratsaldeko **20.00**etan.

MARTXOAK 21 ostirala

- **Aitzaga Kultur Elkarteak** antolatuta, **EEBBtako indioei** buruzko **bideo emanaldia** ikusteko aukera izango dugu: **"Rebelión india en Dakota"**. **Aitzagan** arratsaldeko **19.30**etan.

OHARRAK

- ✓ **Andatza K. K. E.-ak** antolatuta, eski irteera **Luz Ardidenera**, **martxoak 8**an goizeko **5.30**etan aterako da **Udaletxe** aurretik.

- ✓ **Korrika 10**ak dirauen bitartean, **Korrikari buruzko argazki erakusketa** egongo da ikusgai **Aitzaga tabernan**.

LAN ESKARIAK

- ✉ **Interina** lan egingo nuke orduka. Telefonoa: **37 14 10**. Galdetu **Gurutzegatik**.

BAZKARITZEA TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrantea (20 digito): _____

Kirol agenda

MARTXOAK 8 larunbata

- **Areto futboleko** partidua (M): **Antxeta jatetxea- C.D. Ctro. Extremeño.**
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Hernani.** Oiaro kiroldegian arratsaldeko **16.30**etan.
- Jubenil Mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Leizaran.** Oiaro kiroldegian arratsaldeko **18.00**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (M): **Urdaneta- Usurbil K.E.**
- Kadete mailako mailako **eskubalo**i partidua (M): **Urdaneta- Usurbil K.E.**
- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (M): **Pulpo- Usurbil K.E.**

MARTXOAK 9 igandea

- Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **La Salle- Usurbil S.T.**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Mariaren Bihotza C.D.**
- Erregional mailako **futbol** partidua (M): **Donibane S.C.R.D.- Usurbil F.T.**
- Kadete mailako **futbola**(M):

Usurbil F.T.- Vasconia C.D.B

- **Hondartzako futbol** partidua (M): **Aginaga Sagardotegia- Ederra.** Goizeko **10.10**etan.

MARTXOAK 15 larunbata

- **Areto futboleko** partidua (M): **Axular Lizeoa- Antxeta jatetxea**
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Zarautz- Usurbil K.E.**
- Jubenil Mailako **eskubalo**i partidua (N): **Bergara- usurbil K.E.**
- Kadete mailako mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- J.D. Arrate.** Oiaro, arratsaldeko **16.00**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo**i par-

tidua (M): **Usurbil K.E.- J.D. Arrate.** Oiaro, arratsaldeko **17.30**etan.

- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Portugalete.** Oiaro, arratsaldeko **19.00**etan.

MARTXOAK 16 igandea

- Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **Usurbil S.T.- La Salle.**
- **Futbol** partidua (N): **Bergara K.E.- Usurbil F.T.**
- Erregional mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Gwendolyne C.F.**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Gazteak F.T.- Usurbil F.T.**

Usurbilgo **futbol** taldeko **neskek** ederki astindu beharko dute baloia datorren **martxoaren 9an, Hondarrabiko** taldea ere ez omen da makala eta.



maitzak

ESKUBALOIA

Otsailak 22-23

Usurbil-Pulpo, (kadeteak,n)
Usurbil-Elgoibar (jubenilak,n)
Ereintza-usurbil (jubenilak,m)
Ereintza-usurbil,(kadeteak,m)
Zarautz-usurbil, (2.nazionala,m)

Otsailak 1-2

Usurbil-Urduliz, 25-20 (2 nazionala, m)
Usurbil-Trapaga, 30-18 (jubenilak, m)
Usurbil-Trapaga, 16-15 (kadeteak,m)
Urrietako-Usurbil, (jubenilak, n)
Elgoibar-Usurbil, (kadeteak, n)

FUTBOLA

Otsailak 22-23

Lagunartea-Usurbil 2-1 (region,m)
Usurbil- Aldapetak 3-2 (jubenil, m)
Alde zaharra-Usurbil 4-0 (kadet,n)

Martxoak 1-2

Sporting-Usurbil 3-2 (kadeteak, m)
Allerru-Usurbil 4-1 (jubenilak, m)
Usurbil-Aloñamendi 1-2 (kadete, n)

SASKIBALOIA

Otsailak 22-23

Mundarro-Usurbil 58-28

Martxoak 1-2

Usurbil-Goierri B 49-31

ARETO FUTBOLA

Otsailak 22-23

Antxeta-Elgoibar 5-4
Martxoak 1-2
Aloñamendi-Antxeta 4-5

HONDARTZAKO FUTBOLA

Otsailak 22-23

Servicristal-Aginaga Sagard 2-0

ZENDOIA - ENEA

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak



TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak eta
bokatak

Barruko arropa-urpak-eta
etxeke arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87

Kupeleko sagardoa momenturik onenean aurkituko duzu



iruin



Bertakosagardoberriadastagai.
Sagardotegiko giroa eta menua.

Zubieta
Tlf. 36 12 29



saizar



Hemendik aurrera 45 kupeletako sagardoa
dastagaidenboraldiosan.

Kalezar
Tlf. 36 22 28



urDAiRA



Egunero irekita, igandegauetan ezik.
Bertako sagardoberri probatzeko aukera.

Aginaga
Tlf. 37 26 91



A GiNA GA



Egunero irekia astelehenetan ezik.
Menu aukera zabala, sagardotegikoabarne.

Aginaga
Tlf. 36 67 10



Araeta



Urteosoan txotxetik bertako sagardoa.
Egunero zabalik. Lekulasaieta aparta.

Zubieta
Tlf. 36 20 49



ilLunbe



Txotxdenboraldia irekiberria.
Aurtengo sagardoa dastagai.

Txoko alde
Tlf. 37 16 49